



Andoain, 2019-11-04

“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” emango dira, eta bakoitzerako lau finalista izendatu ditu epaimahaiak

2019KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU ZORTZI FINALISTA

Azaroaren 28an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, eta han jakingo da nortzuk diren aurtengo saridunak

Aurten lehen aldiz finalistak izango dira Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: “Kazetaritza saria” bata, eta “Komunikazio saria” bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Finalisten artean azkenean saridunak nortzuk diren sari banaketa ekitaldian jakingo da. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 28an izango da, Andoainen, Bastero Kulturgunean, iluntzeko 7etan egingo den ekitaldian. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak. Ondorengo zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak.

Ondorengo hauek dira zortzi finalistak:

<i>Kazetaritza saria</i>
Jon Artano Izetaren 2019. urteko kronika eta elkarrizketak Ameriketatik EITBn
“Iraultza txikien lekukoak” atala Elhuyar aldizkarian, Ana Galarraga Aiestaranen eskutik
“Zozoen elean” elkarrizketa sorta (bost elkarrizketa) Berrian, Miel Anjel Elustondoren eskutik
Kanaldudeko “Hurbiletik” saioko 2019ko uda arteko atalak

<i>Komunikazio saria</i>
2019. urteko Korrikaren komunikazio kanpaina
Ttap aldizkari digitalak 2019. urtean sendotze bidean emandako pausoak
“ Egunean behin ” jokia, CodeSyntaxen eskutik
“ Barruan gaude ” podcasta, Oier Aranzabalek Zuzeun argitaratzen duena

Epaimahaia ondorengoek osatzen dute: Jose Inazio Basterretxea (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Itxaro Borda (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), Aingeru Epaltza (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), Maite Goñi (MUko HUHEZiko irakaslea eta komunikazioan aditua), Elixabete Larrinaga (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Ion Muñoa (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Gradu irakaslea), eta Jon Sarasua (MUko HUHEZiko irakaslea eta komunikazioan aditua). Mahaiburua Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, Mikel Arregi, eta idazkaria, Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria dira.



Andoaingo Udala

Euskara Zerbitzua